

Nafarkaria

• ostirala • 1999ko otsailaren 26a

Egunkaria

Gehigarri honetan

Bortziriak • Etorkizuna ziurtatze bidean Ttipi-Ttapa Telebista.

Karmele Galartza • «Gero eta beharrezkoagoak ditugu herri komunikabideak».

Nafarroako bide eta xendak ezagutuz



• LARRION ETA POUMLIER

Javier Pagola kazetariak Navarra por mil caminos liburua argitaratu berri du Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin. Iruindarrak herrialdeko bide eta xendetatik barna ibiltzeko, gozatzeko eta begiratzeko gomita luzatu nahi dio irakurlari. Baztan, Ultzama, Aezkoa eta Erronkariko bailarak; Aralar; Erdialdeko hainbat paraje; Erriberak eskaintzen dituen kontrasteak: Bardeak eta ureztatutako lur sailak, kasu. Badu non arakatu bidaiari irakurzaleak.

Lerate ●

Urtegia abiapuntu

Uharka inguratzen duten parajeetan bidexka sare bat egingen da aurki

Oinez, zaldiz zein bizikletaz ibili ahal izateko bidexka sare bat eraikiko da aurki Allozko urtegiaren inguruan. Halaber, aparkalekuak eta berdeguneak eraikiko dira bertan, hantxe egotea laket egiteko asmoarekin.



Allozko urtegiaren inguruan ibilbideak egingen dira.

● MIKELSAIZ

GESALAZ BAILARAREN BIHOTzean da Allozko urtegia. Inguruan mendixkak eta labore zelaiak ikus daitezke nagusiki. Tartean herrixkak eta han eta hemen barreiaturiko etxe txikiak. Ugaria da, urte osoan baina batez ere uda garaian, Allozko urtegiara hurbiltzen den jende kopurua; izan ere, antzak dira urak aisialdirako eskaintzen dituen aukerak: igeriketa, wind-surfa, buzeroa, bela, piragua, e.a. Dena den, uharka inguruko bideak egoera txarrean aurkitzen dira eta orain arte aski zaila zen uharka inguratzen duten lurretatik paseatzea. Egoera hau kontutan izanik, eta Gesalaz bailararen ondare naturala zein kulturala indartzeko xedearekin, herrixketako ordezkariak egitasmo bat jarri berri dute martxan. Proiektuaren arabera, bidexka sare bat egi-

nen da aurki bailaran zehar. Orotara hiru ibilbide nagusi egingen dira: bata urtegiaren bazterrak lotuko dituena; bigarrenak bailarako herrien arteko komunikazioa hobetzea du helburu; eta hirugarrenak mendien tontorretara errazago igotzea ahalbidetuko du. Aurreneko bide sareari dagokionez, erran beharra dago oinezkoentzat baino ez dela izanen, eta bertatik txirrindulak eta zaldiak ere ibili ahal izanen direla. Bigarren bide sarea auto zein motorrentzako aproposa izanen da, eta Lerate, Muskiz, Estenoz, Muez, Viguria eta Arzo herriak lotuko ditu.

Azkeneko bideak, arestian erran bezala, mendi puntak izanen ditu helmuga: Iturgoiengo Trinitatea, Elimendi, Artesako Gaina eta Etxauri mendiak, hain zuzen.

Belauntzi Federazioaren kokaleku

Aipatu bide sare horretaz gain, egitasmoak aparkalekuak eta berdeguneak eraikitzea ere aurreikusten du. Halaber, urtegiaren bazterretan hondartza txikiak ere egingen dira eta zuhaitz landaketa egitea ere pentsatu da. Horrela turismoa erakartzea espero da eta modu horretan lekuak berez eskaintzen

dituen aukera anitzak baliatzea.

Inguru horretan turismoa gehitzera lagunduko duen bertze elementu bat Nafarroako Belauntzi Federazioak duela gutxi jakitera eman duen berria izanen da. Izan ere, Esako urtegiaren hazkundera dela eta, hango zerbitzuak itxi egingen omen dira. Hortaz, hemendik aurrera Belauntzi Federazioak Allozko urtegian finkatuko du bere lana. Horrela, Lerate herrian itsas klub bat eraikitzeke asmoa ere bada.

→ Kristina Berasain

Betelu ●

Udaleko diru kontuak ezin argiturik

AZKEN URTE HAUETAN, Beteluko egungo Udalak kritika ugari jaso ditu. Aurreko legegintzaldian aritutako udal taldeari egin dizkio kritikak Jesus Gonzalez buru duen taldeak. Aurreko zinegotziek diruarekin zuzen jokatu ez zutela eta, kontu horiek azter zitzala eskatu zion Nafarroako Kontuen Ganberari. 1995eko kontuak dira, zehazki, aferaren mamia. Ikerketa amaitu du Ganberak, eta hauxe da emaitza: «Aurrekontu eta kontu arloetan atzematen ditugun barne-kontrol arazoak direla eta, ezin dugu Beteluko Udalaren 1995eko aurrekontu kitapenari buruzko iritzirik eman».

Legehauste nabarmenak ere aurkitu omen dituzte Kontu Ganberakoek: aurrekontu kontsignaziorik gabeko gastuak, egozpen desegokiak, oinarrizko dokumentazio falta, administrazio baldintzen eta baldintza teknikoaren orri falta, besteak beste.

Badirudi epe laburreko finantza egoera nabarmen hobetu dela, eta horretan zerikusia handia izan omen du Udalak Nafarroako Gobernuarekin zuten 31 milioi pezetako zorren kitapena (1,24 milioi libera). Zorra hori ezkutatzen saiatu izana da Jesus Gonzalezek aurreko udalkideei egozten dien erru nagusia.

→ Urko Aristi

bidean begi

MAITE URKIA



Elurra elurraren gainean dugunean kaleetan, mataza zuri guriak asfalto estaltzen dutenean, kilika berezia nabaritzen dugu gure barreneko xirristuren batean, eta izugarri pozten dira meteorologoak beren hitz jarioek hutsik egin ez dutelako.

Halako egunetan, kilika eta baretasuna, biak batera senti ditzakegu, -baldin eta errepidean ez atzera ez aurrera egotea egokitzen ez bazaigu behintzat - eta argitasunez beteriko estalki hori putzu zikin bihurtzen den arte denbora eten egiten dela dirudi, denborarik gabeko haurtzaroak egun batez bisita egingo baligu bezala.

Jolaserako grina pizten zaigu gure eguneroko es-

Goxoki poltsak

zenatokian elurra mara-mara ari duenean, jolaserako eta alferkeria gozorako, eginbeharrak beste egun baterako utzi eta lasaitasun ederrean egoteko, institutura ondoko herrira joaten ginen garai hartan bezala, zeinetan elurretan laprast egiteko beldurrez autobusa ez baitzen abiatzen herritik eta ikasleok egun osoa libre izaten baikenuen, urte osoan halako opariren bat, astegun buruzuria nahi eran pasatzeke.

Eta orain ere antzeko, kaleak zuritzen diren egun bakanetan, ez baita, azken batean, arto eta egur asko behar elurrak irauten duen egun parerako.

Baina, dela herrietan dela mendian, zuhaitzetan pausatutik, elurraren edertasunak bereganatu egi-

ten gaitu eta, itsasoak bezalaxe alde latza ere badien arren, luze edukitzen berari begira. Iratzarri egiten dizkigu gorputzake sordorfinak, zorientasun eta lasaitasun printzak sortarazten dituzten hormona horiek, oro har atsegina ematen diguten gauza, pertsona, egoera eta parajeen inguruan edo ariketa fisikoa gogoz egiten dugunean gertatu ohi denaren antzera. Paisaia ederrak, maitasuna, adiskidetasuna, gustuko lana, barre egitea, bazkari on bat, muxuak...

Goxoki poltsa bat bezalakoa izan beharko luke bizitzak, eta poltsa horretan gure gustukoak diren eta on egiten diguten goxokiak baizik ez sartu, eta zapo-re saminak ahalik eta gutxien izan daitezten saiatu.

Bortziriak • Telebistaren etorkizuna ziurtatze bidean

Aurreikuspen guztiak bete ez badira ere, bide onetik doa kanpaina

Ttipi-ttapa
telebistaren kanpainak
goitik beherako
aldaketa izan du azken
egunetan. Biltzea
espero ziren 6 milioi
pezetak bildu ez
badira ere, martxa
onean doa ekimena,
eta Euskara
Mankomunitateak ere
3 milioi pezetako diru
laguntza onartu du.



Ttipi-Ttapa Telebistaren arazo ekonomikoak moldatuz doa.
● MIKEL SAIZ

HERRI BAKOITZERAKO PARATU-tako helburuak betez doa Ttipi-ttapa telebistaren kanpainan. Hala, Etxalar eta Igantzin aurreikuspen guztiak bete ez ezik, gainditu ere egin dira. Etxalarren 600.000 pezeta bildu nahi ziren, eta dagoeneko 802.000 pezeta eman dituzte 63 lagunek. Igantzin ere aise gainditu dira aurreikuspenak. 432.000 pezetara iristea zen helburua, eta astelehenerako 616.000 pezeta zituzten bilduak, 63 la-

gunek emandakoaren bidez. Arantzan, bertzalde, 32 lagunek 336.000 pezeta eman dituzte, nahiz eta 516.000 zeuden aurreikusirik.

Kanpaina motelago doa Lesakan eta Beran. Biztanle kopurua aintzat harturik, Beran 69 lagunek eman dute laguntza orain arte, eta guztira 863.000 pezeta bildu dira, espero diren bi milioi eta erdietatik urrun. Hala ere, kanpaina geroago hasi zen Beran, eta, hortaz, bertze

hamabortz-hogei egun iraungo du oraindik kanpainak. Guztira, beraz, 6 milioi horietatik lau biltzea espero da kanpainaren bidez. Publizitate sarreraren aldetik, ekainetik hona igoera nabaritu dute, eta, izugarriko igoera ez bada ere, espero zutena gutienez betetzen joanen dira. Joxe Manuel Irigoien Ttipi-ttapako kideak, hala ere, kezka bat azaldu du: «Euskarazko komunikabideen etorkizuna eta iraunkortasun ekonomi-

koa oraindik zalantzakoa da, eta, autofinantzaketa ahalegin handiak eginagatik ere, une honetan zail da diru laguntza publikorik gabe aitzinera egitea, bai Ttipi-ttapa, bai EGUNKARIAK, bai euskarazko bertze komunikabideek ere».

Seinalea zabalduz

Bertzalde, Ttipi-ttapa telebistaren seinalea zabalduz doa, eta epe laburrean herri gehiagotara iritsiko da. Aste honetan bertan Zalain Zokon paratutako antenarekin, auzo horretan ez ezik, Alkaia eta Zalain auzoetan ere ikus daiteke telebistaren seinalea. Halaber, Arantzako Udalak Otsagarran antena paratzeko erabakia hartu du, eta Eguzkialdean, Bordalarren eta herriko bertze zenbait tokitan hartu ahal izanen da laster batean seinalea. Larun gainean antena paratzea onartu denez, Bortziritako zoko guztietan ikusiko da Ttipi-ttapa telebista, baita Malerrekako zenbait tokitan - Doneztebe, Elgorriaga, Ituren, Zubietan..., Goizuetan, Saran, Senperen, Urruñan, Urdazubin eta Leitzañan ere.

→ Jon Abril

herri aldizkariak

Edume Elizondo

Muga zaharren itxura txarra

Muga zaharrei buruz mintzatzen da **Herria** astekaria bere azken zenbakian: «Denek ezagutzen dugun muga tzar hori doi apaldu bazen 1986an, Espainia Europa batuan sartzearekin, geroztik da azkarki ideki, Schengen-ko hitzarmenak berme. Hitzarmen horien arabera alabainan, muga hortan nor nahi noiz nahi iragan ditake batere paperik erakutsi gabe, hots mugarik ez balitz bezala! Hainbestetaraino nun erran baititake muga hori orai gure kaskoetan dela gehienik bizil!».


«Gisa guziz, mugaren gainean, gauzak azkarki kanbiatu dira azken urte

hotan eta beti kanbiatzen ari. Denetan ezaguna da hori eta gehiago oraino pasala handi-handia izaiten den tokietan, hala nola Hendaian, Pausun eta Biriartun. Eta hor gainti, muga idekiz geroz, mugaren ondo horiei etzaiote itxura txartu baizik, hori dugu egun salatu nahi! Mugaren bazter horiek balukete orai garbaldi on baten beharra! Funtsean, iduri du Irunen segurik holako zerbait eginen ere dela eta biziki luzatu gabe, hain segur aurtengo udaberrian...».

«Muga horren gainean baziren aspaldian frango bastiza pizkorak mugazaintzat eginak. Etxe horiek ez dira

gehiago baliatzen, nehork ez du horietaz arta mikorik hartzen eta zenbait urte bakar barne, hiruzpalau urte barne nunbait han, arrunt eskutik joanak dira!».

Hendaia zubi zaharra aipatzen du **Herria**-k: «Hunaindiko puntan beti hor da etxetto txar bat, frantses polizarena. Aterbe xume bat dena andeatzen ari dena eta jestu gutiz lurrerat botatzen ahal litakeena. Aldiz, zubi berriaren ondoko bastizak biziki planta trixtean dira baina laster barreatzekoak dituzte. Irunge herriak du hori ardietsia berrikitan espainol gobernuaren ganik».




urdai
aren
mintzoa

Bonobusa eta Ni

(Oharra: artikulu hau irakurtzeko premiazkoa da autorea pippa ahoan, xake taula aurrean eta bufanda fin eta txuri batekin irudikatzea. Mila esker)

Bonobusak kendu dituzte.

Zer eragin izango du ni bezalako idazle baten bizitzan? Auskalo. Dena den, ondorio bat begibistakoa da: Kaletik geratzen ninduten jubilatuek (ei! hori ez al da Xabier Larraburu Nafarkariko zutabegilea? bai!) jada ez dute bonobus gorrikerik aterako nire autografoa eskatzeko. Berdin dio, egia da. Ez du inongo axolarik, bainan, ez dakit, bonobusaren atzekaldean sinatzearenak bazuen ukitu bat. Zer aterako ditate orain? ez dakit ba. Jubilatuetxearen karneta akaso. Ja ja ja. Edo emazteak idatzitako erosketen papera, eta sinatu beharko dut!, noski. Nire izena margarina, borraja eta jabon para la lavadora hitzen atzetik jarri beharko dut! Ja ja ja. En fin. Zutabegileek horrelako mila pasadizo konta genitzake. Oroitzen naiz orain nola Frankfurt-eko liburur ferian nengoela, neska frantses batek, barkatu, Iparraldekoa esan nahi nuen, ja ja ja, nola, diot, ezagutu eta sinadura eskatu zidan: Xabier Larraburu? Nafarkariko zutabegilea? Baietz erantzun nion bainan, ja ja ja, gaxoak ezin zuen sinetsi: Zera, ez da egia, marketing zara, folletoak banatzeko Larraburuz mozorrotu zara! federik gabeko emakumea! Azaldu nion ezetz, ez nintzela mozorrotutako aleman bat, ni benetakoa nintzela, patillatik tiratzeko nahi izan ezker. Patillatik tiratzen hasi eta ohean bukatu genuen. Ja ja ja. Zertaz ari nintzen? a bai bonobusak!. Estooo... jada historia dira bai. Orain txartel batekin ordaindu behar da. Bonobusek zekarten «Ez tolestu-ez busti» esaldia hil egin da hein batean. Bai. Hitz horiek Literaturaren zerrura igo dira eta hirugarren egunean ez dira berpiztuko. Shakespeare-ren eskuin aldean eserita egongo dira dagoeneko. «Ez busti-Ez tolestu»: zuen lana ongi bete duzue, hemen gertatzen garenek adore berarekin jarraituko dugu aurrera. Ez adiorik. (Hemen xake taularen peoi bat aurrera mugitzen dut eta pentsamendu sakonetan murgildurik banengo bezala gelditzen naiz.)

Javier Pagola  Kazetaria

«Ezagutu eta begiratzen dudan Nafarroa bildu dit»

Javier Pagola kazetariak *Navarra por mil caminos* liburua argitaratu du Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin. Manilan (Filipinak) jaioa 1946an, txikitatik Iruñean bizi izan da. Nafarroa hegoaldeko iparraldera eta sortaldetik sartaldera oinez igaro du iruindarrak, eta horren lekuko da kaleratutako lana. Berak hainbat xendatan bizitakoa, entzundakoa, irakurritakoa..., hain zuzen.


Irratian eskarmentuko gizona, duela 30 urte Ser irrati kateko kazetaria da. Lana jakinmin eta bilatzeko senaren lekuko ere badela dio.

■ Zein da liburua jaso duen Nafarroa?

Ezagutu eta begiratzen dudan Nafarroa bildu dit 24 kapitulutan. Oso ibiltaria naiz eta larunbatero idazten dut ibilbide bat: Pirinioetatik barna, Ebroko ibai ertzetik paseatuz, abelbideetatik ibiliz... Begiratu egiten dut eta maiz jendearekin hitz egitera gelditzen naiz. Bestalde, 30 urteko ariketa profesionala daukat eta horrek ere izan du eragina. Xurgatzaile bat naiz. Bizitza oso lana izan da liburua. Jadanik ezaguna den Nafarroa ageri da baina nire ikuspegi pertsonaletik galbahetua. Informazio asko biltzeaz gain, uste dut liburua mamitsua dela, bada literatura egiteko saio bat. Liburua kazetari-tzako erreportaiaren eta bidai liburuen bide erdian dagoen zerbait da. Autoreenganako etengabeko sarrera bat dago, autore literarioak batez ere: abestiak, esanerak, euskal kultura ere oso present dago. Kultura erromantzeaz dagoen moduan, lur hau nonnahi euskaraz ari da kantari.

■ Zureak ere Nafarroa tradizionala hartu du, non gelditu da garaikidea?

Gida bat argitaratu duen orori beti galde-tu izan diot non dagoen Nafarroa garaikidea. Saiatu naiz garaikidetasuna agertzen. Iruñerriko plangintza orokorretara hurbil-keta bat egiten dut. Duteraz mintzatzean emigratioaz hitz egiten dut. Uste dut Nafarroa



garaikidea begiratzean arkitektoen aipamen gehiago daudela, beste artista edo historiagileenak baino. Ez da egunerokotasuna bilatu nahi duen liburua baina present dauka.

Ultzamako kapituluaren paisaia ekonomiarren funtzioaren arabera garatu dela ikusteko saioa egin dut. Bestalde, gotikoaz hitz egiteaz bezainbeste interesatzen zait Eduardo Torrojak egin Allezeko kanalaz mintzatzea.

■ Liburuak aldarrikatzen du landetara ateratzea, bideetan barna ibiltzea, eta herriak bisitatzea, eta, aldi berean, irakurtzea. Biak uztartu daitezke?

Tokiren batera joaten naizenean, saiatsen naiz aurretiaz dokumentatzen eta hori ezan itzulitakoan ikusi dudaren inguruan aztarrikatzen dut. Liburua esku artean duenak aukera izanen du toki batera joateko eta liburuan ageri dena ikusteko. Orain arte, erakundeetako liburuak, batez ere, kolorea bilatu dute. Irudiak present egon behar du, baina berria, ona eta onuragarria da erakunde batek testu mamitsu bat argitaratzera ausartu izana.

■ Zure kazetari lanak eta errealtatearen ikuskatzaile izateak lagundu izan dizu?

Liburua dokumentatutako edonork idatz zezakeen. Baina gu pribilegiatuak gara gertakarietara sarbidea dugulako. Nafarroaren aldakuntzarako urte oso esanguratsuak bizi izan ditut eta behatoki horrek ematen ditu

BARDEAK: Estepa higatua «Bardeak leku atsekabetua da, baina ez da basamortua. Uraren, haizearen eta gizakiaren higidurak lan egin duen tokia da. Herri lur zabala da, eta abeltzaintza eta nekazaritzarako erabilerak aprobexamendu berriei bidea eman die. Muga historikoa da, seinale diren gazteluez ingurutua, eta begirale aurkari eta lapurren aurrean. Araudi juridiko berezia duen komunitatea. Ikuskatze lan handia ematen duen paisaia, biluzia eta hutsa dirudien arren, ugaria eta aberatsa da: fauna erakargarria eta landare esteparioak, batipat.»

mundu oso zabal bat. Badut bestalde, beste behatoki bat, herri kulturarena. Mundu hori interesatzen zait bi mailatan: bai kultura tradizional moduan, bai herri kulturaren edozein manifestazio moduan. Betidanik lan egin dut hiriko auzoetako zentru kulturaletan. Emakumeen errealtatea ezagutu dut, eta gauzei buruzko dudak ikuspegi aberasten dut. Ematen dit errealtatearekiko ikuspegi oso garrantzitsua. Bestalde, izan dut jakinmina. Zentzu horretan liburuak jasotzen du bizitakoa, entzundakoa, irakurritakoa, solasutakoa, miretsitakoa, paseatutakoa. Nafarroan badira gauza txikiak eta askotan garrantzirik gabeak oso ongi ikertuak baina beste batzuk ez hainbeste. Badira zonalde batzuk absurduaino iker-tuak, baina beste batzuk, Erribera kasu, oso gaizki tratatuak daude. Hori nabaria izan da eta badira liburuan hiru kapitulu Erribera-ko zonaldean kokatuak. Bestalde, berriz, Andia eta Urbasaren inguruko kapitulu bat dago eta hor hainbat gauza ikertuak daude: ikazketa, Ameskoako mendi mugaren kude-


aketa, larrearen kalitatea Andia-ko mendilerroan. Baina gero Erriberara joaten zara eta oso garrantzitsua den ureztatze-sailen kultura apenas landua dagoen. Ikertu ditut hiru kulturak: arabiarrak, judutarra eta kristaua eta badaude gogoetak Tuterako eta Erriberako musikagileen inguruan. Jota, hain gaizki tratatua beti. Joka ikerketa bat behar du, oso gutxi ikertu baita.

■ Erriberaz ahaztu direla diozu. Baina Nafarroa Beherea ere ez da ageri?

Ez dut ahaztu. Nafarroa Behera ere agertzen da Aezkoa eta Erronkariko bailaraz mintzatzen naizenean.

■ Pagolak badu berea egiten duen paisai edo bideren bat?

Urku lu azpian Agnostegiko muinoan, Bentartea. Horrek hotzikara sorrarazten dit baina Bardeetara joaten naiz eta txoratu egiten nau. Erdialdeko karraskalak...



ANDIA eta URBASA: «Andiak euskaraz haundia esan nahi du. Izen hau, egun ekialdeko herenari dagokiona, erabili zen hasieran mendi guztiak izendatzeko, Urbasa erdian eta hegoaldean jarraitzen du Entzia izenarekin, Arabako lurraldean. Urbasa eta Andia herri lurrak dira, «betidanik» nafar guztiaren omen dira XVI. mendetik aurrera, Gorteek eta gero Diputazioak behin eta berriro errepikatu dutenez...»

● LARRION ETA PIMOULIER

ULTZAMA: belatsoak eta mendiko etxeak «Linguistek diotenez, ibaia izendatzeko zeltiar hitza da Ultzama, eta baita hizkera euskaldun ezberdin batean mintzatzen den bailara ere. Euria noiznahi botatzen du, eta ostarreetatik agertzen den eguzkiarekin nahastenean, ultzamarrek azeri-bodak ospatzen ari direla diote. Belardiek berde izateari uzten diote elurrak estaltzen dituenear. Paisaiaren humanizazio ikaragarriak ez ditu urratu aspaldiko lurzorru begetalaren hondarrak.»

● LUIS OTERMIN



■ Liburua bereganatzen duenari zer esanen zenuke?

Arretarako dei bat da. Lehenik eta behin, goza dezala bertan idatzitako prosarekin, nahiz eta hega luze-rik ez duen.

■ Euskarara itzuliko dute?

Esan didate inglesera itzuliko dutela eta euskarara itzultzeko eskatu diet. Oso pozik nago ez dutelako deus kendu ez jarri eta askatasun guztia izan dut egiterakoan. Irakaslea ere banaizenetik asko gustatuko litzaidake liburua erabiliko balitz ikastetxe, institutu eta ikastolotan. Irakasleek presta ditzatela ibilaldiak haurrekin.

■ Zein da zeharkatuko duzun hurrengo bidea?

Uff. Oraingoz asteroko txangoa egiten jarraituko dut. Baditut txango asko idatziak. Argitaratuko ditut batzuk *Gure Mendiak* Nafarroako Mendi Federazioko aldizkariak. Baina horrelako material asko dago eta zerbait publikatuko banu, argitalpen merke batean eginen nuke.

■ Bihar zein ibilbide hartuko duzu?

Oraindik ez dakit. Joan den igandean Milagroko ureztatze-sailak ikusten egon nintzen.

Biharko txangoan pentsatzen gelditzen den bitartean, aitortpen bat egin du Pagolak. Mendizale amorrutaz izateaz gain, oso hiri-zalea ere badela dio, eta herrialdeko lekurik ederrena bere etxeko egongela omen da. «Nire etxeko egongela da Nafarroako tokirik hobereana. Argi hori-beroaren arrimuan, eserleku on batean liburu bat eskuan dudala hartzen dut sosegu», esanaz bukatu du.

→ Irene Arrizurieta

Karmele Galartza

Irati Irratiko esataria

«Gero eta beharrezkoagoak ditugu herri komunikabideak»

Irati Irratiak sei urte bete zituen ilbeltzaren 22an. Aezkoako Bailaran, Auritz, Orreaga, Aurizberri eta Erroibarren entzuten den irratiari hiru urte eta erdi darama lanean Karmele Galartzak. Arazo ekonomikoak dituzten arren, euskara bultzatzeko eta eskualdea biziarazteko irrati bezalako herri komunikabideak beharrezkoak direla dio.



● MIKEL SAIZ

soslaia

ARIBEN IRATI IRRATIARI HERRI-ko Etxean duen egoitzan mintzatu gara Karmelarekin, eguneroko programazioa prestatzen ari zen bidenabar. Suelto eta lasai hitz egin du, mikrofonoen aurrean mintzatzen eskarmentua baduela frogatuz.

■ **Zer-nolako balorazioa egin duzu sei urteotan egingako lanaz?**

Euskaldunak garenok eta euskara sentitzen dugunok eskualdea lasterrago euskalduntzea nahi genuke. Sei urtetik hona, haur gehienak D ereduaren daude, AEK-ek ere bere lana egin du, baino jende askok dio euskara ikasteko beharrik ez duela ikusten. Horregatik, irratiari ere ezin dugu euskara hutsen egin, hemengo jende asko ez delako euskalduna. Euskararen alde ari bagara ere, gaztelaniaz egiten dugu, batzuetan nahi baino gehiago. Dena den, balorazioa ona da. Jendeak hasi zenean baino hobekiago onartzen du.

■ **Irratiak balio izan du euskaldun zahar bakanen altxorak gordetzeko?**

Gordetzeko eta jakinarazteko, eta, batez ere, eurak garrantzitsuak direla sentiarazteko.

Eurei aezkeraz egiten ari diren azkenak direla esateko. Esaterako, Iriberrin etxe batean badakite amonak eta amak, eta ilobak ikasten ari dira, baina oso etxe gutxi dira. Ez guk nahi adina, betiere.

■ **Tokian tokiko euskalkien inguruko eztabaida sortzen ari da orain herri aldizkarietan. Hemen ere horrelako gogoetarik egin duzue?**

Hemen kilometro asko daude. Abaurregainetik hasi eta Zilbetiraino, eta Orreagatik hasi eta Orotzeraino barreiatzen da irrati, baino jende gutxi gaude eta euskararen aldeko mugimenduetan jende bera juntatzen gara. Urte asko daramagu lanean, ez dugulako ikusten nahi adina aurrer

ratzen dugunik, ez eta nahi adina egiten dugunik. Badakigu poliki-poliki joan behar dugula, baina gertatzen zaiguna da jende heldua eta euskalduna hiltzen ari zaigula. Gelditzen ari den jendea erdalduna da, eta ez dugu horien laguntza zahar baliotsu horiena bezain erraz lortuko. Errrealitatea horrelakoa da. Gazteek lagunduko digute, baina hemengo eus-

kara duen norbait lanean sartuko balitz, hobe.

■ **Azken boladan arazo teknikoak eta ekonomikoak omen dituzue. Mintzatu zarete Aezkoako Juntarekin?**

Diruz oso gaizki gabiltza. Irratiari diru laguntza bat ematen dio Nafarroako Gobernuak. Gero, Aezkoako Bailarak hainbesteko bat eman behar du biltzen dituen herrien biztanleriaren arabera, eta beste hainbeste egin behar dute Auritzek eta Erroibarrek. Kontua da Aezkoako Bailarak ematen duela, baina Auritzek eta Erroibarrek ez dute dirurik eman nahi eta Auritzko Udalak ez du deus jakin nahi. Bestalde, aurrean Aurizberri eman du, baina Erroibarko bailarako herriak ez. Aitzakia ateratzen dute beste modu bateko irrati nahi dutela, beste langile batzuk. Ez dakite zer nahi duten. Oraindik ere, batzuen artean ez dago ongi ikusia irrati euskaldun bat.

■ **Erronketako bat dirua lortzea da, beraz?**

Bai, dirua da. Orainxe bertan lau hilabete kobratu gabe egon gara. Ez zegoen dirurik Hizkuntz Politikatik igorritakoa etorri den arte. Horrela, herriko festetan tabernak jartzen ibili behar dugu dirua ateratzeko, kamisetak egiten... Askotan energia gehiago gastatzen dugu dirua nola atera pentsatzen, irrati on bat nola egin pentsatzen baino. Pena handia hartzen dut. Elkartetik ere etortzen

Duela 50 urte Oderitzen jaioa, orain dela 24 urte bizi da Aezkoan, senarra mediku lanetarako hara bidali zutelako. Denbora asko bost seme-alabak hazten emana, orain koskortuak dituela, badu beste gauzetarako beta. Oso gustuko du olioaz pintatzea eta irrintziak botatzea. Aita ere irrintzilaria omen zuen, eta Karmele amonaren herrira, Goldaratzera, festetara joaten zenean hasi zen irrintziak botatzen, eta gaur arte.

Asteleheneretik larunbatera emititzen du Irati Irratiak, egunero hiru orduz: 11:00etatik 14:00ak arte, hain zuzen. Hamabi kolaboratzaile dituzte herriko kronikak egiteko.

Bestalde, irrati irekia dago programaren bat egin nahi duenarentzat.

Dena den, kezkatu dago Karmele eskualdea husten ari delako. Egun 130 haurrek ikasten dute inguru horretan, gehienak D ereduaren. «Kontua da gero eta jende gutxiago gaudela. Urtean zehar 20 pertsona-edo hiltzen dira eta 4 jaio; pentsa nola goazen», dio kezkatu. Hala ere, ez du etsiko, eta irratiari uzten duenerako inguruan falta diren zerbitzuak ematen bat eskainiko lukeen zerbitzu jarri nahi luke, euskaraz betiere.

da dirua. Jadanik badira ehun lagun. 5.000 pezeta jartzen du bazkide bakoitzak, eta gero eta jende gehiago ari da ohartzen behar duela lagundu, gaizki gabiltzalako. Irratiak urteko lau milioi pezetako aurrekontua du (160.000 libera), eta ez da nahikoa antena eta tresna hobeak lortzeko.

■ **Duela gutxi, Ultzaman irrati berri bat ireki zen. Arazoak arazo, gero eta herri komunikabide gehiago zaudete.**

Bai. Gero eta beharrezkoagoak ditugu herri komunikabideak. Euskal Herri osoan erdararen aldetik daukagun lehia oso gogorra da. Irrati txikiok beharrezkoak dira jendea ohartarazteko zein zerbitzu eskaintzen

duten, eta jendea elkartek sortuz inplikatu behar duzu.

■ **Nola ikusten duzu irratiaren etorkizuna?**

Behin baino gehiagotan esan da irrati egun batetik bestera itxiko dela. Baina ez da itxiko euskararen eta irratiaren alde ordu asko lan egin nahi dugun talde bat gauden bitartean; irrati ez da nolana itxiko. Beste batzuek esaten dute itxi egin beharko litzatekeela jendea ohartarazteko, baina ez dut uste egokia denik, besteak poztu egingo liratekeelako. Ohartu behar dugunok konturaturik gaude egoeraz, lan asko egin behar dela dirurik ez izan arren.

→ Irene Arrizurieta



Nafar Kronika

Mikel Beramendi

Etsi beharko

UPNkoak Diputazioko bulegotik kanporatzea arrazoi askorengatik oso ona litzatekeela pentsatzen dugunok etsi beharko dugu. Bai, gero eta argiago ikusten ari naiz erregionalistek eta UPNk oposizio talde nagusian infiltratuta dituenik lasai egin dezakeela lo. Izan ere, ekainera bitarteko epean egoera goitik behera aldatu ezean ezinezkoa da gobernu aldaketa.

Nafarroan agintariak baino botere handiagoa duen egunkariak argi eta garbi erran zuen igandeko sermoian: hauteskunde ondoen «koalizio handia» (UPN-PSN) soluziorik hoberena izan daiteke. Aurreko igandean periodiku berean hiru orrialdeko elkarrizketa eskaini zioten koalizio horretan zoriotsu arituko litzatekeen ustezko sozialistari. (Infiltratu hitza ez dut erabili, hori zuk pentsatu duzu, irakurle gaizto hori).

Gaurko egoera kontutan hartuz gero, argi dago sozialistak beharrezkoak direla gobernu aldaketa gauzatzeko. Urralbururena gertatu eta gero inoxenteren batek pentsatuko zuen, agian, hura alderdia aldatzeko aukera ona zela. Iritzi okerra, ordea, egunetik egunera sozialistena erremediorik gabea dela frogatzen ari garelako.

Lizarbe (argia, tipoa) hauteskunde kanpainia oso ona egiten ari da lidergoari eusteko. Ez du CDNrekin akordio nahi oso eskuindarrak direlako, ezta EArekin ere abertzaleak direlako eta Euskal Herriarroken abstentzioa ere ez luke onartuko. Dena den, hurrengo diputazioburua izanen dela dio. Argia, tipoa.

KONTZERTUAK

- **Mendillorri:** La Bodeguita del Medio tabernan, Jose Ripiauren kontzertua gaur, 19:30etan.
- **Epratzu:** Pilt, Leihotikan, Sus-traia eta Pottoka taldeek kontzertua eskainiko dute bihar 23:00etan, Korrika Kulturaren egitarauaren barruan, frontoian.

ERAKUSKETAK

- **Zizur Nagusia:** Kultur Etxean Keiko Hoshino Kojimaren margolanak ikus daiteke martxoaren 7a arte.

ZINEMA

- **Iruñea:** Karrikiri Elkarteak antolatuta, zinema euskaraz Golem zinematokian. Gaur *Corina Corina* filma eskainiko dute 20:00etan. Aurretik, *Bernar* film laburra eskainiko dute.

ANTZERKIA

- **Mendillorri:** Mikelatx taldeak *Amaia edo VIII. mendeko euskaldunak* eskainiko du ikastetxean datorren ostegunean, 20:00etan.
- **Iruñea:** Asteazkenean, *Txan Handia* antzezlanak Kultur Etxean, 20:00etan.

BERTSOLARIAK

- **Burlata:** Nafarroako Bertsolari Txapelketaren bigarren kanporaketa Musika Eskolan 22:00etan. Mikel Altzuart, Bittor Elizagoien, Oskar Estanga, Jean Louis Harinordoki «Laka», Fermin Mihura eta Xabier Silveira.
- **Lizarra:** Nafarroako Bertsolari Txapelketako hirugarren kanporaketa bihar 16:30tan Musika Eskolan. Estitxu Arozena, Pello Goikoetxea, Iñigo Ibarra, Xabier Legarreta eta Juan Mari Lopez.

- **Iruñea:** Triki-bertso jira ostegunean 20:00etan Alde Zaharreko karriketan, Gaztelu Plazatik abiatu. Estitxu Arozena eta Xabier Silveira bertsoetan eta trikitiarekin Xabi Arakama.

BESTELAKOAK

- **Etxauri:** Denak Bat elkarteak urtero egiten duen pilota txapelketarako deialdia zabaldu du. Bost kategorია daude, eta izena emateko epea martxoaren 17an bukatuko da.


► **Iruñea:** Urtxintxa aisialdirako eskolak bi ikastaro antolatu ditu datorren hilabeterako. Lehenengoan, Ingurugiro heziketarako teknikak ibilbide naturaletan irakatsiko da. Martxoaren 3an hasiko da, eta 115 ordukoa izanen da.

Bigarrena ezindu fisiko, psikiko zein zentzumenezkoen aisialdirako animazio teknikei buruzkoa, eta martxoaren 5ean hasiko da. Ikastaroak 30 ordu iraunen du.

► **Lizarra:** Eloisa Ramirez Bake-rok *Circulación monetaria en la Estrella medieval* hitzaldia eskainiko du datorren asteazkenean, 20:00etan, Gustavo de Maeztu museoan.

Arestiren liburutegia

Castelao nos



—¡Un padrenuestriño pol-os que morreron en Oseira. Nebra e Sofán!

Oseiran, Nebran eta Sofanen hil zirenen gatik aita-guretxo bat!